



bipuntuzero

euskaldun **ON** aldizkaria

XII 2015ko martxoa

bipuntuzero

euskaldun  aldizkaria

XI 2014ko abendua

Koordinazioa eta Diseinua

Iker Moreno

Testugintza

Ilunber Ayestaran
Itsaso Bakedano
Maite Churruca
Goreti Etxepare
Maider Iriarte
Irene Iturbide
Koldo Los Arcos
Itxaso Markiegi
Iker Moreno
Amaia Sanchez
Maite Urdaniz
Maitane Urdiain
Ismael Yagüe

Argazkiak

Karrikaluze Elkarte

Zuzentzailea

Miren Munarriz

Inprimategia

Ultzama

Karrikaluze Euskara Elkarte

Ribed Parkea, 1

31610 Atarrabia

948 35 57 39 - 685 11 57 56

www.karrikaluze.org

komunikazioa@karrikaluze.org

LG NA 742-2012

Eusko Jaurlaritza eta
Atarrabiako Udalaren
diru laguntzaz
argitaratua.



[+] SASI ASTE KULTURALA

[-] LABURBIRA

- Martxoaren 25ean
- 20:00etan
- Atarrabiako kultur etxean

[-] PISUKIDEAK

- Martxoaren 26an
- 20:00etan
- Atarrabiako kultur etxean

[-] MUNDUKO SUKALDARITZA

- Martxoaren 27an
- 20:00etan
- Etxe Beltza elkartean
- Ondoren afaria egongo da, eta bakoitzak berea ordaindu beharko du

[+] ANTZERKI EMANALDIA

- Antzerki tailerreko kideen lana
- Ekainaren 11n
- 20:00etan
- Atarrabiako kultur etxean

[+] UDAKO GAZTE KANPALDIA

- Abuztuaren 3tik 8ra
- Otaza, Garaio (Araba)
- LH6 - DBH4
- IZEN EMATEA: apirilaren 13tik 17ra

[+] BIDEAN

- Petri Atarrabiakoa institutuko DBH4ko ikasleen emanaldi musikatua
- Apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran
- 18:00etan eta 20:00etan
- Atarrabiako kultur etxean
- 5€ (adin txikikoek 3€)
- Sarrerak Atarrabiako kultur etxean eta Petri Atarrabiakoa institutuan salgai

Editoriala

19. Korrika:

EUSK AHAL DUN!

Datorren martxoaren 19tik 29ra, Euskal Herriko korrika eta errepideetan zehar, Urepeletik Bilbora helduko da, eskuz esku, Korrikaren lekukoa, milaka euskaldun eta euskaltzaleen ahaleginari esker. "Euskahaldun!" lelopean, euskaldun eta euskaltzaleok euskararen normalizaziorako dugun ahalmena aldarrikatu nahi izan du AEK-k aurten.

Badira 34 urte lehen Korrika ospatu zenetik. Urte horietan guztietan, AEK-k sortutako egitasmo honek ekarpen handia egin dio euskalgintzari eta izugarri aberastu du euskararen normalizazioaren aldeko diskurtsoa. AEK-k oso irudi eta mezu alai, irudikor eta erakargarriak landu izan ditu beti, eta horri esker lortu du bere mezua herritarren artean zabaltzea, baita egoera zailtan ere (eta ez bakarrik arlo ekonomikoari dagokionez). Sortu zenetik, euskal erakunde honek publizitate koloretsu eta baikorra erabili du ekimena sustatzeko. Zer esanik ez Korrikaren inguruan ezagutu ditugun kanta itsaskorrak, korrika egitera gonbite zuzena egiten dutenak, euskaltzaleen kontzientzia errotik piztu izan dutenak. Urte luze hauetan guztietan Korrikak euskal komunitatea batzeko eta irudikatze gaitasuna erakutsi du: euskaldunak eta euskaltzaleak badira nonahi; elkartasuna pizteko gauza izan da tarte eta ordutegi guztiak betetzeko (baita deserosoenak ere); eta etengabe, euskararen jarraipena eta bizirik irauteko gogoa plazaratu du.

19. edizio honetan, feminismotik datorren ideia bati heldu dio: "ahaldundu"; alegia, boterea hartu eta erabili. Izan ere, normalizazioaren borrokan euskalgintzak opari gutxi izan ditu, lortu duena euskaldun eta euskaltzaleen ahaleginari esker lortu baitu, bereziki auzolanaren bidez. Ahalduntzeko jarduna guztioi dagokigu, euskaraz eginez, eraginez eta hizkuntza babestuz. Bakoitzak ahal duen neurrian, jakina: dakienak euskaraz eginez, euskaltzaleak euskalgintza babestuz eta guztiok gure inguruan eraginez. Euskararen aldeko diskurtsoa berritzeko premia gorria dugun garaiotan, ongi etorria izan dadila AEKren ekarpena.

Adi guztiok, Korrika badator eta!

Argazki gehiago ikusteko,
jo 9. orrialdera.



Karrikaluzeko haur eta gazteak **ELURRETAN**

Urtarrilaren 17an, Larunblai, Jauzi eta Iseka aisialdi taldeetako haur eta gazteekin ateraldi bat egin genuen. Elurretara joatea zen gure plana, eta hasieran eguraldia gure alde ez egon arren, Belaguara abiatu ginen goizeko bederatzitik eta erdietan. Bidaia luzea izan zen, baina azkar pasa zitzaigun barruan genuen urduritasunaren ondorioz. Belaguara iristear geundela, eguraldi kaxkarra zela eta, prestatua genuen plana pixka bat moldatzea erabaki genuen, beste behin ere inprobisatzeko dugun gaitasuna agerian utziz. Autobusetik atera eta hamaitakoa hartu bezain laster, elurretan jolastera joan ginen guztiak. Korrika, saltoka eta txiribuiltaka ibili ginen ordu erdiz gutxi gorabehera.

Jarraian, goizeko ekintzari hasiera eman genion: elur olinpiadak. Bost taldeetan banatu ginen Larunblai, Jauzi, Iseka eta Formakuntzako kide guztiak, eta talde bakoitzak eremu bat aukeratu zuen: elur panpinarik ikusgarriena egitea zen gure helburua. Ez hori bakarrik, elur panpinen osagarriak lortzeko zenbait froga pasatu behar izan genituen, besteak beste: kroketa eginez maldan behera jaistea; gure punteria aparta baliatuz elur bola bat uztai batetik pasaraztea; makarroia, sua eta tximeleta moduko hitzekin abesti originalak sortzea; begiak estalirik ezkutatuta zeuden zenbait begirale bilatzea... Modu honetan, talde bakoitzak bere elur panpina eraiki zuen, irudimenari hegan egiten utziz. Askotarikoak izan ziren sortutako panpinak: Hawaiiiko emakume dantzaria; rock-zalea eta txeritxo lagun-minak; lau pisutako panpina erraldoia... Panpina guztien originaltasuna ikusita, epaimahaiak ezin izan zuen irabazle bakarria aukeratu eta elur panpina bakoitza kategoriatan irabazle izendatu zuen: elur panpina ikusgarriena, originalena, berritzaileena, landuena eta sortzaileena. Olinpiadak amaitu ondoren elurretan jolasten egon ginen tarte labur batez. Bazkalordua iristean, arropa bustia erantzi, lehorra jantzi eta Izabara joan ginen autobusez. Frontoian bazkaldu genuen, lurrean eserita, borobil erraldoi bat osatuz. Bazkalostean, futboleant aritzeko une txiki bat izan genuen, baina berehala hartu behar izan genuen Atarrabiara itzultzeko bidea.

Egun osoa jolasean eman genuen arren, autobusean ez zen lasaitasun izpirik sumatu, eta kantatzen, ikusi-makusin jolasten eta asmakizunak kontatzen eman genuen bueltako bidaia.

[MU]

ATARRABIAKO BERTSO TAILERRA

Atarrabia herri euskaltzalea da, eta euskal hizkuntza eta kulturaren adierazpide desberdineko interesa agertu izan du beti. Antzerkigintza, literatura idatzia, euskal dantzak... arlo ugari landu dira herrian. Baina ahozko euskal literaturaren adarretako bat, alegia bertsoalaritza, herri mailan jorratu gabeko diziplina genuen, aurretik ere hainbat ikastetxetan saio batzuk eskaintzen zitzaizkion arren.

Abestuz, errimatuz eta neurtuz egiten den berbaldi bat da bertsoalaritza. Xabier Amuriza bertsolari handiak honela azaltzen du bertso xume baten bitartez:

“Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra hor zer kirol mota
den bertsoalaritza”

Beraz, doinua, errima eta neurria ditugu diziplina honen ezaugarri teknikoak, nahiz eta bertsoari kalitate maila “bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-erretorikoek” ematen dioten.

Lehen aipatu dugun bezala, herri mailan orain arte ez da bertsoalaritza landu, baina Atarrabiako Udala, Bertsozale Elkartea eta Karrikaluzeren arteko elkarlanari esker, azaroan Atarrabiako Bertso Tailerra jarri zen martxan. Azarotik urtarrilaren 28ra arte zortzi lagun aritu dira ordu eta erdiko saioetan bertso munduan murgiltzen eta trebatzen, Xabier Terreros bertsolari lesakarraren gidaritzapean. Guztira, zazpi saio egin dituzte lagun eta bertso artean.

Tailerreko ikasleen apunteetan oinarrituta, azter ditzagun bertsoalaritzaren ezaugarri horietako bakoitza zertan datzan:

ERRIMA: hitzen bukaeran gertatzen den hots berdintasuna da. Hauxe da bertsoa egiterakoan alderdirik zailena, errima bat edo beste edukitzeak bertsoaren mezua baldintzatuko baitu. Errima familia desberdinak daude: k-p-t, b-g-r-d, m-n e.a.

NEURRIA: bertsoa puntutan zatitzen da eta puntu bakoitzak, neurriaren arabera, silaba kopuru jakin bat izango du. Bertsolariak kantuaren laguntzaz neurtzen du bertsoa, pentsatu gabe.

DOINUA: bertsoa beti kantatua da eta 3000 doinutik gora daude. Ikertzaileek diotenez, bertsoalaritzak 10.000 urte inguru ditu; beraz, pentsatzekoa da doinuak ahoz aho transmititu direnez historian zehar doinu ugari desagertu direla.

Baina teoria alde batera utzita, irakur ditzagun bertso tailerlean aritutakoek osatutako koplak, eta ikus dezagun oholtza gainean ibiltzeko talenturik ba ote dagoen gure herrian.



DOINUA: Santimamiña.


(Estribilloa)
ATARRABIAN BERTSOTAN
HEMEN GABILTZA BORROKAN
LUJANBIO, ARZALLUS, ETA SILVEIRA
SUPERATZEKO ASMOTAN.

(Estrofak)

Euskara ekarriz ahora
Abesten dugu gustora
Ongi ala gaizki ez du axola
Hori guretzat nahiko da.

Poliki bihurtzen ari
Gara denak bertsolari
Maila bikainik ez dugu baina
Pozik gabilta kantari.

Nik gustuko dut sormena
Gorputzarekin gehiena
Hitzekin aldiz kostata nabil
Beharko nuke kemena.



Batzuk dohainak dituzte
Besteak dira pakete
San Andres herriko patroari
Eskatu beharko kapote.

Habaneran ari gara
Zortzikoan behar bada
Errima, hitza bihotza da ta
Doinua berriz taupada.

Batzutan bertsoak entzuten
Besteetan irakurtzen
Ta guk sortu behar ditugunean
Ondokoari kopiatzen.

Bakoitzak bere pedrada
Guk ere gurea hara
Irakurlea zuk daukazuna
Gurea baino hobea al da.

Espero dezagun eskola zein tailer honetatik herrian bertso eskola bat sortzeko gogoia piztea eta ongi pasatzeaz gain gure bazkari, afari eta jaiak kantuz alaitzeko aukera izatea. Ez da erraza izango, baina aterako al da Nerea Bruño gure Atarrabiako bertsolari ezagun eta abila berdinduko duenik? Aurten goan astirik ez dagoen arren, hurrengo Nafarroako Bertso Txapelketarako promesa on bat bilatzen ahaleginduko gara.

[MU]

HERRI HARRI

Arkitektoa izanda ere ez da batere erraza Atarrabia begi objektiboekin ikustea.

Begi kolpe batez, kontraste handiak topa daitezke, baina baita kontrasteen eraginez sortutako oreka berezi bat ere. Horrek adierazten du herria transformatu egin dela; alegia, behar eta interesen ondorioz eraiki eta berreraiki izan dela, harriz harri, hain zuzen ere hizkuntzek urteetan zehar egiten duten moduan. Gu, bisitari eta biztanleok, espazio batean mugitzen garen heinean, hiriarekin batera eraldatu egiten gara, ingurugiroa egoera berrietara eraldatzen dugun modu berean.

Atarrabiak azalera txiki samarra izan arren (kilometro karratu pasatxo), gaur egun hamar mila biztanle baino gehiago ditu. Populazioaren kontzentrazio honen ondorioz, erraza da Atarrabian toki batetik bestera mugitzea eta ohikoa da bidean ezagunak topatzea. Gainera, kaleen zabalera eta eskala gizakiarekiko oso aproposak dira. Era berean, Atarrabiak zerbitzu, osasunbide eta kultur zentroak ditu, eta nahi izanez gero, herritarrok herritik mugitu gabe biziraun dezakegu bertan.

Bestalde, herriko zarata arnas handi batez isilarazteko aukera ere badago bertan. Ezkaba eta Miravalles bereizten datozkigu Ultzama ibaiaren urak, iparreko haize hotz freskoen marmarrak ekarriz; ibiltariaren urruneko abestiengandik ihesi. Urteetan herriko sarbide izandakoa maitale samur eta gaizkile gazteen aduana izaten jarraituko du. Kale nagusiko material eta apaindura zaharrek besarkatzen gaituzte paseoan.

Bereziki azpimarratu nahiko nuke kanpoaldean bizitzea beharrezkoa zaigula eta Atarrabian horretarako aukerak baditugula. Eguzki izpiez gozatzeko uneak izugarri garrantzitsuak dira harreman osasuntsu eta lasaia izateko. Aisialdi eta jakin-minerako sortu izan diren herriko berdeguneak urteetan funtsezko topagune izan dira. Ezinezkoa da jendarteko kalitatezko harremanetan pentsatzea berdegune edo parkerik izan gabe; beharrezkoak baititugu, txoriek ekaitzaren ostean txioka iskanbila sortzea beharrezkoa duten modu berean. Egunero, herriko plazak toki lasai eta mugagabeak bihurtzen dira; topagune indartsu eta bereziak. Plazetan, kotxeen bideetatik at, ez da arriskurik sumatzen, eta haurrak lasai asko ibiltzen dira bertan jolasean, gurasoek, aitona-amonek edo zaintzaileek lasai asko kafea hartzen duten bitartean.

Munduan ez dago eremu erabat perfektu bat. Nahikoa da hirian edo herrian bertan familiartasuna sentitzea, bizipenak gogoratzea eta, azken batean, guztion topagune bihurtzea. Adin bakoitzarentzat bat. Atarrabian hori gertatu izan dela eta oraindik ere gertatzen dela antzematen da, eta urte askotan hala izan dadila espero dut.

[IM]

IKER LARUNBE ELENO

“Niri dantza egitea gustatzen zait, eta hori jada egiten dut Mikelatsekin”

Oraingo honetan Euskadiko XXXIV. Gipuzkoar Aurreku Txapelketako irabazlearekin egon gara hizketan: Atarrabiako Iker Larunberekin.

Herriko gazte hau 14 urterekin hasi zen dantzari, Atarrabiako Mikelats Dantza Taldearen ikuskizun bat ikusi eta gero, hain zuzen ere. Plazan dantza eta dantza zeuden dantzariak gogotsu eta alai zirela ikusirik, berari ere dantzaren bitartez sentimendu horiek bizitzeko grina sortu zitzaion; eta gogotsu hartu ere, dagoeneko 18 urte baitaramatza dantzari.

Taldera sartu zenean Euskal Herriko herri desberdinetako dantzak ikasten aritu ziren, eta gero noski, ikasitako plaza zuten. Handik urtebetera, Mikelats dantza taldeko zenbait kidek fandango eta arin-arin ikastaro batean izena eman zuten Gipuzkoan. Gure gaurko protagonista ere, ilusioz beterik, ikastaroan parte hartzeri animatu zen. Dantzari finak zirela ikusirik, irakasleak txapelketan parte hartzeko gonbitea luzatu zien eta Atarrabiako dantzariak gustura onartu zuten.

Bada, txapelketa horretako ikusleen artean dantzari aditua den Jesus Mari Garate zegoen, eta Atarrabiako dantzariak zuten potentziala ikusirik, beraiekin lan egiteko proposamena egin zien. Baietz esan zioten, eta, beraz, esan liteke ordutik Jesus Mari Garate dela Ikerren maisua.

Oraingoan txapelketa irabazteaz gain garaikurra ere etxera ekartzea lortu duzu, ezta?

Bai, jada Atarrabian dago eskultura. Garaikurra eskuratzeko bi modu daude: 3 txapelketa jarraian irabaztea edo 5 txapelketa irabaztea, jarraian ez badira ere. Azkeneko txapelketarekin bi modu horietan lortu dut trofeoak ekartzea: alde batetik, azkeneko hiru txapelketa jarraian irabazi baititut, eta bestetik, aurretik beste bi txapelketa irabazita nituelako.

Lanari dagokionez, bai, azkeneko bi hilabete eta erdi hauetan txapelketa prestatzen aritu naiz buru-belarri. Urteak aurrera egin ahala, orain konturatzen naiz lan handia egin dudala.

Epaila izateko aukera izan duzula badakigu. Ausartuko zara datorren urtean?

Hurrengo urtean txapelketan izango naiz berriro ere, baina ikusle moduan. Oraingoz ezezkoa ematen diot epaile izateko aukerari. Eserlekuetan dagoen giroaz gozatzea gustatuko litzaidake.

Dantza ikuskizunak egiteko edo beste dantza talderen batean aritzeko eskaintza berezirik jaso al duzu txapelketa hau irabazi ondoren?

Bai, aurtun, udaberrian, ospe handiko Aiert Beobide dantzariak deitu zidan beraiekin batera lan egiteko; baina nire lanagatik eta zekarren konpromisoagatik ezetz esan nion. Bestalde, txapelketako hurrengo asteburuan Garikoitz Mendizabal txistulari famatuak deitu zidan Tele5 kateko programa batean El consorcio taldeari egiten zioten omenaldi batean agurra dantzatzeko, baina beste konpromiso bat nuen eta ezinezkoa izan zen.

Zure abilezia eta gaitasunak ikusirik, nola ez duzu maila profesionalen jarraitzen? Zer dauka zure herriko dantza talde kuttunak?

Ez dut inoiz pentsatu profesionalki dantzari aritzea. Horrek gustuko ditudan beste gauza asko uztera behartuko ninduen. Niri dantza egitea gustatzen zait, eta hori jada egiten dut nire dantza taldearekin; beraz, ez dut behar dantza munduan maila profesional horretan egoterik. Gainera, Mikelats Dantza Taldea dantza talde bat izateaz aparte, lagun talde bat ere izan da

beti, eta horixe da talde honetan segitzeko arrazoietako bat.

Dantzan bakarrik edo taldean? Bakarrik.

Mendia edo hondartza? Mendia.

Pelikula bat? Noviembre.

Musika taldea? Bizardunak.

Dantzari bat? Ibon Uharte.

Dantza bat? Otsagi.

Janari bat? Makarroiak.


Garagardoa edo ardoa? Garagardoa.

Uda edo negua? Uda.

Ikuskizun berezi bat? Mikelatsen XX. urteurrenekoa.

[AS]





LARUNBLAI-JAUZI KANPALDIA
2014-XI-29,30 / Irañeta



ISEKA KANPALDIA
2014-XII-12,13,14 / Doneztebe





EL URRETARA ATERALDIA
2015-1-17 | Belagua



MAITASUNA(K)

Wikipediaren arabera, “atxikimendu eta afektu sentimenduek sortutako emozio eta esperientzia sorta da” maitasuna. RAEren hiztegiaren arabera, ordea, “gizakiaren sentimendu bizia da, bere gutxiegitasun propioan oinarriturik, beste gizabanako batekin aurkitzea bilatzen duena”.

Txikitatik maitatzen ikasten dugu. Hasiera batean gurasoak eta senideak dira maitasun hori garatzen laguntzen digutenak; gure bizitzaren lehenengo urteetan haien dira gure erreferente eta atxikimendu loturarik handienak. Modu horretan hasten gara maitasunaren kontzeptua gure baitan asimilatzen.

Hala ere, gure garapen prozesuan aurrera egin ahala, maitatzeko modu desberdinak daudela ohartzen hasten gara. Txikitari oso zaila egiten da ulertzea nola maita daitekeen pertsona bakoitza modu desberdin batean; hau da, asko kostatzen zaigu ulertzea nola den posible gure senideen artean maitasun mota desberdinak egotea, adibidez. Baina urteekin, pertsonekin sortzen ditugun harreman eta loturei esker, desberdin maitatzen ikasten dugu.

Maitasuna modu desberdinean transmititzen dugu gure ingurukoaren artean edo maite ditugun pertsona horien artean. Hala ere, maitasuna transmititzeko modurik ohikoenetarikoa bat gorputz kontaktua da: laztanak edo “mimoak”. Eta ez dira txikikeriak, pertsonak gure bizi ziklo osoan zehar maitatuak edo maitasun hori sentitzeko beharra baitugu; kontaktu korporalaren beharra dugu: haur batek ez baditu laztanak jasotzen edo ez badu gorputz kontaktua izaten, hiltzera ere irits daiteke; gazte batek ez baditu jasotzen, hase-rritu egiten da; heldu batek jasotzen ez baditu, triste jarriko da; eta agure batek jasotzen ez baditu, gaixotu egingo da. Beraz, esan bezala, maitatuak izateko beharra daukagu.

Esan dezakegu maitasuna sentimendu berekoi bat dela: maitasuna bilatzen dugu gu zoriontsuago izateko helburuarekin. Baina maitasun guztiak al dira berekoiak? Maitasun guztiek helburu berdina al dute?

10

MAITASUNAK GREZIA KLASIKOAN



Egun, maitasunari buruz hitz egitean, bikote munduarekin lotzen dugu askotan, eta ez dugu maitasuna era globalean aztertzen. Interesgarria da horregatik atzera begiratzea eta gure aurrekoek maitasunari buruz pentsatzen zutena aztertzea. Agian guri ere modu batean edo bestean erabilgarri izango zaigulako, maitasuna ulertzeko edo maitasunari buruz pentsatzeko. Grezia klasikoan maitasunak interes berezia pizten zuen pentsalarien artean eta maitatzeko modu desberdinak zeudela ondorioztatu zuten. Maitasun horiek bereizteko, maitasunaren anabasa hori ordenatzeko, greziarrek hainbat termino asmatu zituzten: eros, storgé, ágape eta philia, hain zuzen ere.

STORGE: odolezko maitasunari erreferentzia egiten die; hain zuzen ere, geureak bezala sentitzen ditugun horiei. Senideekiko sentitzen duguna adierazteko erabiltzen dugu maitasun mota hau. Konpromisoa eskatzen duen maitasuna da. Esan bezala, greziarrek maitasun mota honen barruan sailkatzen zituzten senideak edo senidetzat jotzen ditugun pertsonak; hau da, traiziorik egingo ez dizuten pertsona horiek izanen dira horrela maitatuko dituzunak.



MAITASUN ERROMANTIKOA

Gaur egungo gizarte modernoan maitasuna modan dagoen gai bat dela esan dezakegu; edonon eta edonoiz dugu maitasunaren inguruko erreferentziak ikusi eta jasotzeko aukera (hedabideetan, zineman, musikaren bidez...). Zehazki, maitasun erromantikoa da gaur egungo okzidenteko modako maitasuna, edo hobe esanda, hedabide guztietatik transmititzen diguten maitatzeko era bakarra. Maitasun mota honek, maitasun erromantikoa, bikoteen arteko maitasun eredu bati buruz hitz egiten digu —beste maitasunei buruz gaur egun oso gutxi hitz egiten da—. Maitasun erromantikoa emozioetan dago oinarritua, eta ez hainbeste plazer fisikoan. Hauek dira bere ezaugarri nagusiak: bizi osorako maitasun gisa ulertzen da (betiko maiteko zaitut), eksklusiboa da (inoiz ezingo dut zu bezala inor maite), inkondizionala da (gertatutakoak gertatuta maitatuko zaitut) eta uko egite maila altu bat suposatzen du (nire bizia bera baino gehiago maite zaitut). Laranja erdiaren mitoa hemendik eratorren da; izan ere, maitasun mota honen arabera, badirudi ez garela izaki osoak eta guretzat osagarria den gizakia topatu behar dugula. Hortaz, bestearengan jartzen ditugu guk zoriontsu izatearen itxaropen eta esijentziak. Maitasun mota hau gehien sustatzen dena izan arren, ez da existitzen den bakarra. Eta askotan, horrelako pentsamenduek, sarritan pentsamendu magikoak diren pentsamendu horiek, min ematen dute, maitasun mota honek sustatzen dituen gauza asko lortezinak direlako, eta bertatik eratorren dira egungo bikote arazo asko.

Hala ere, esan beharra dago, gaur egungo familia bat hartuko bagenu eta familia horretako amona, ama eta alabaren bikoteen maitasunari buruz galdetuko bagenie, gauzak pixka bat aldatu direla ikusiko genuke. Amonak maitasuna eternotzat joko du; hau da, nahiz eta alargun gelditu, bere bikotearekin zeruan topatzea esperoko du. Amak maitasuna heriotzarekin bukatzen dela pentsatuko du, ezkontzan esaten den esaldia “heriotzak bereizten gaituen arte”. Alabak, aldiz, “maitasunaren heriotzak bereizten gaituen arte” pentsatuko du, hau da, maitasuna bukatu arte. Hortaz, denborarekin maitasunari buruzko kontzeptua bera ere aldatuz doala esan ahal dugu.

Gainera, maitasuna modan dagoen gai bat izan arren, ez da uste dugun bezain sinplea. Izan ere, eredu bakarra indarrean izanik eta maitasuna orokorrean aztertu gabe, konplikatua da asuntoa. Gizabanakoak etengabeko borroka batean dihardu: bere askatasun propioa urratuko ez duen maitasuna aurkitzea.

LABUR-LABUR

Gizakiok hainbat modutan maitatzeko gaitasuna dugu; pertsonen arteko harremanak behar ditugu. Bizitzan zehar hainbat fase eta sentimendu bizitzen ditugu: doluak, galerak, porrotak eta garaipean. Gure bizitzako maitasun guztiek, ordea, zerbait ematen digute; zerbait irakasten digute, esperientzia errepikaezin bat edota oroitzapen polit bat.

Maitasuna ez da sentimendu bakar eta estatiko bat. Aitzitik, aldatuz doa bizipen eta pertsonekin dugun loturen arabera; garrantzitsuena maitatzea eta maitatua izaten uztea da. Azken finean, hau da guztiok nahi duguna: guk nahi dugun pertsona horrek gu maitatzea eta guk nahi dugun moduan maitatzea.

AGAPE: latinezko caritas da. Hortaz, karitate gisa dugun maitasuna da. Gupidan, errukitasunean, zaintzan eta adeitasunean oinarrituriko maitasuna alegia. “Maitasun kristaua” esaten dugunean, agapez ari gara, sakrifizioa dakarren maitasunaz. Maitasun desinteresatua da eta plazer aurkitzen du ematearekin soilik.

PHILIA: berdinen arteko maitasuna da, laguntasunarena; errespetuan eta begirunean oinarriturikoa. Maitasun honek pertsonak batzen ditu. Hitz honen esanahia kontuan harturik, beraz, pedofilia hitzak haurrekiko maitasuna, begirunea eta errespetua adieraziko luke —gaur egun kontzeptu hau oso gaizki erabiltzen dugu eta beste behin ere erabilera terminologikoekin nahastu egiten gara—.

EROS: haragiko maitasuna da, erotikaren munduan murgiltzean erabiltzen duguna. Zentzumenekin, gozamenarekin eta plazerarekin jolasten duen maitasun hori; maitasun sutsua. Greziar mitologian Eros maitasunaren eta plazeraren jainkoa zen. Greziarrek bi jainko mota zituzten, jainko handiak eta jainko txikiak. Bada, bigarren taldeko jainkoa dugu Eros; alegia, jainko txiki bat, gerora kristautasunak deabrutzat jo zituen horietako bat. Baina jainko txikien taldekoa izan arren, Erosek botere handi bat zeukan: jainkoak haien artean eta baita gizakiekin maitemintzeko gaitasuna baitzeukan. Honezkerok konturatuko zinetenez, erotika hitza Eros izenetik eratorritako hitza da, eta gaur egun erotikaz mintzatzen garenean plazer guzti horiez mintzatzen ari gara.



[GE] [11]

MUSIKA ETA IZAERAREN GARAPENA

Antzinako gizarteetatik eta historian zehar baieztatu izan da musikak gizakiaren maila guztietan duela eragina: maila fisiologikoan, psikologikoan, fisikoan, intelektualean eta sozio-kulturean.

Fisiologikoki, esan dezakegu musikak gure gorputzean hainbat aldaketa eragiten dizkigula: zirkulazio aparatuaren azelerazioa edo atzerapena edota neuronen jardueraren alterazioak, besteak beste.

Psikologikoki, emozio eta sentimenduak garatzen ditu; adibidez, entzulearen egoera emozionala eralda dezake edo entzuten duen pertsonarengan plazer estetikoak piztu eta norberaren adierazkortasun eta afektibitateari lagundu. Esan beharra dago gure garunaren eskuineko hemisferioak harreman zuzena daukala sormenarekin eta, beraz, baita musikarekin ere.

Fisikoki, gure gorputzaren kontzientzia hartzea eragiten digu musika praktikatzek. Izan ere, denbora-espazioaren egoerak kontrolatzen laguntzen digu, baita oreka eta gure gorputzaren kontrol orokorra hartzen ere; alegia, motrizitate orokorrean laguntzen digu.

Intelektualki, arreta, irudimena eta sormena garatzen laguntzen du musikak. Aldi berean, kontzentrazioa eta memoria ere estimulatu ditu. Howard Gardner-en inteligentzia anitzen teoriaren arabera, musika jaiotzez, berez, jatorriz dugun gaitasuna da, eta desberdin garatzen da pertsona bakoitzean.

Eremu sozialean, musika arte mota bat den heinean, sozializatzeko fenomeno bat dela esan liteke: ideiak, sentimenduak, emozioak eta sentsazioak transmitzeko tresna garrantzitsu bat. Horregatik, gure gizartean musikaren eragina oso handia da; gure eguneroko egoeretan topatzen dugu etengabe. Gainera, musikak gaur egun indar eta presentzia handia du komunikabide masiboetan, baita sistema kapitalista honetan ere: helburu merkantilistekin erabiltzen baita argi eta garbi.

Illo beretik, eta azken finean gu garenez musika kontsumitzen dugunak, pentsa liteke musika mota bat aukeratzeak gure izaera baldintzatzen duela. Eta hain zuzen ere, hori bera frogatu nahi izan dute zenbait ikerketa proiekturen bidez: musika mota bat entzuten dutenak, oro har, modu batekoak direla. Adibidez, jazz musika entzuten duten pertsonak argiak, liberalak eta tolerantzak dira, eta rock edo rap musika entzuten dutenak, berriz, errebeldeak, emozionalki ezegonkorrak eta sortzaileak. Ezagutzen al duzue punk-rock edo rap musika maitatu eta errebeldea ez den norbait? Edota estetika bortitza eta gogorra duen heavy metal zale bakezaleren bat? Ezagutzen al duzue patxanga gogorra entzuten eta dantzatzen duen militanteren bat?


Orokortasun horien aurrean, esan dezakegu musikak ez duela gure izaera zehazten; alegia, ez dagoela lotura esturik musika mota batekin identifikatzearen eta gure ekintzen artean. Aitzitik, haurrak garenetik eta eskolan bertan lantzen ditugun ariketen laguntzaz bereganatzen dugu gure izaera, emozioen bidez. Izan ere, gure enpatia garatzen laguntzen duten ariketak egiten ditugu, baita gaitasun kognitibo eta sozialak garatzen dituztenak ere. Bizitzen ditugun egoerek emozio desberdinak sorrarazten dizkigute (tristezia, poza, beldurra...), eta emozio horiek dira, hain zuzen ere, gure izaera eraikitzen dutenak. Horrela, haurrak garenetik gai gara gure kabuz musikak transmititzen dituen sentsazioak nabaritzeko eta gure pentsamendu eta emozioekin lotzeko.

Azken batean, bizitako esperientziek, biologiak, inguruak, kulturak eta momentu historikoak berak baldintzatuko dute gure izaera, eta, hortaz, baita zenbait egoera emozionaletan aukeratzen dugun musika bera ere.



MARRAZKI BIZIDUNAK

Bizidunak diren heinean, txikitan telebistan ikusten genituen marrazkiak gurekin batera hazi dira. Haien bizitzek ere bide okerrak ibili dituzte, telebista kate publikoen zentsura eragiteraino. Guk, ordea, lekutxo bat egin diegu Bipuntuzero aldizkarian.



PIPI GALTZA-LUZE

Pepita Mediaslargas Amerika latinoan (kar, kar, kar). Bihurria eta laranja jantzia, txikitatik heziketa alternatiboa jaso du. Aita esklabismoan lanean dabil, eta bere lan orduak ez diote Pipiren beisbol partidua ikusten uzten. Horregatik berarekin haserre dago Pipi eta aitarik ez duela erraten du. Baina aita astebururo itzultzen da Kunterbuntera. Ama hil egin zela erraten du Pipik, baina hori ere gezurra da. 60ko hamarkadan Mediterraneora eguzki bila etorritako milaka emakume hanka-luze suediarretako bat da bere ama, eta han Pepe batekin maitemindu zen berriz, Rafaela Carraren kantari men eginez. Aitak gertaera hura lotsagarritzat hartu eta Kongoko beltzek jan zutela erran zuen. Azken finean, Afrika Pirinioetan hasten da.

Pipi argazkilaritzaren munduan murgildu zen. Probokatzaileagoa izateko, bere animalia maiteekin argazki erotikoak egiten hasi zen. Bere Mutil Txikiren izena oximoron bat bertzerik ez zela erakutsi zuen, eta Nilsson jaunaren platanoen maneamendua argitara atera zuen. Tonny eta Annika anai-arrebak ere aferan sartu zituen, sexualitatearen mundua hankaz gora eta irekita utziz. Abba taldearekin eta Bremeneko animaliekin kolaborazioan, Kanta zoortikoak izeneko albuma sortu zuten. Lan hori, ordea, ez dugu hemen ezagutzen, garai horietan zentsurak estalirik baitzegoen estatu espainiarra. Su beltz tabernan egon zen iaz Pipi porno terrorismo liburuaren konbentzionalismoari kritikak egiten.

Horrelakoak dira moral protestantea duten herrialdeak.

DORAEMON

Duela 30 urte Bizarzurik afer afera bat izan zuen Catwoman-ekin. Tximiniako harriek hitz egin balezakete... Afera horren berri emanez gero bi pertsonaia horiek eskuratuko luketen fama txarra ekiditeko, Doraemonen jaiotza ezkutatu egin zuten. Baina sasi-seme kosmiko sakela handidun honek telebistan agertzea erabaki zuen, bere aita nor zen erakusteko. Lehenik eta behin, Aquí hay tomate-n agertu zen, baina euskaraz eta japonieraz duen ahotsa gazteleeraz aldatzen da eta inork ez zuen seriozki hartu. Doraemon telesailean, bere botere kontsumistei lekua eginez, seme gisa zuen eskubideen alde borrokatu zuen. Baina inork ez duenez Bizarzuriren froga genetikorik inoiz eskuratu, Doraemonek ezin izan du inoiz bere jatorria frogatu. Horrek nanoen esplotazioetik lor zezakeen dirua lortzea eragotzi zion. Eta, beraz, orain arte bere poltsiko magikoa erabili du bizimodua atertzeko, etorkizunik gabeko ume tonto bati eskaini beharrean, poltsikoa bere "sardinabide" bihurtuta. Joan den egunean honi buruz aritu ginen solasean Txantrean, ijito batzuei "substanzia magikoak" sakelatik atera eta saldu bitartean.

Mundu honetan ez dagoenez bera bezalako beste inor, Dorami arrebarekin laz-tanka ibiltzen da.

BIKI BIKINGOA

Gaur egun bere izena honela idazten du: Vicky. Beti jantzi izan duen gona hura praka estu batzuegatik aldatu du. Ilea belztu egin du. Berriz ere iparraldeko herri batetik etortzen zaigun pertsonaia androgino bat... Eroski supermerkatuan txokolatezko palmera bat erosten ikusi nuen. Sexuz aldatu zenetik hormona berriek txokolatea eskatzen diotela esaten du. Deusek ez du sexu aldaketaren operazioa salatzen, beharbada barneko hormonek ez zutelako aldaketa handirik jasan behar izan.

Txikitako bidaiek Vickyren ideiak indartsu bilakatu dituzte. Gizonak ergelak dira, eta listo (Biki bera bezala). Mutiko honek ez zuen jasaten goizeko ordu txikietan iratzarri behar izatea konplexuz beteriko aitaren zentzugabeko abenturetarako. Sexuz aldatu zen, emakumeak ezin baitziren itsasontzietan igo hilekoak marrazoak erakarriko zituelakoan. YMCA-n bikingorik ez egotearen arrazoia, Biki espetxeratu zutela. Umeen aurrean sudur jokoak egitegatik. Bere droga esperientziak direla-eta gizarte langilea da orain Iruñerrian, diplomazia eta sudur trebetasunei onena ateraz.

Karrikaluzek laster hartuko du begirale gisa.



Da Vinci Valfierno Peruggia

Leonardo da Vinci 1503an hasi zen Mona Lisa margotzen, eta azken azterketa zientifikoek argitu dutenez, 1519ra arte luzatu zuen margotze prozesua. Leonardok bere koadrorik famatuena gainean eraman zuen Florentzianik Erroma eta Erromatik Frantziara, eta dirudienez, bere heriotzara arte margotzen jarraitu zuen. Frantziako Frantzisko I.a erregeak koadroa erosi zuen eta zendu zenean Fontainebleaura eraman zuten, gero Parisera, eta azkenik Versaillesera, Luis XIV.aren bildumara. Frantziako Iraultzan lehen aldiz sartu zuten Louvren. Napoleon Bonapartek, ordea, bertatik hartu eta bere logelan zintzilikatu zuen. Baina hau deserriratu zutenean, Louvrera eraman zuten berriz ere. Hizpide dugun margolan honen bidaia korapilatsua ez zen, ordea, Napoleonekin amaitu.

14

Lapurreta

1911ko abuztuak 20, igandea. Vincenzo Peruggia zurgin italiarra eta Louvreko langile izandakoa museora sartu eta biltegi txiki batean ezkutatu zen.

1911ko abuztuak 21, astelehena. Mantentze lanak zirela eta, museoa publikoarentzako itxita zegoen. Peruggia bere ezkutalekutik atera eta Carré aretora joan zen bertako langileek erabiltzen zuten gabardina zuri bat soinean zuela. Mona Lisa paretatik hartu eta ondoko eskailera ilunetan ezkutatu zen. Bertan, bihurkinaren laguntzaz, markoa eta beirazko babes-xafla kendu zizkion koadroari eta ondoren bere gabardinarekin bildu zuen. Samotraziako Garaipena izeneko lanaren azpitik pasa, kalera irten eta taxi bat hartu zuen. Ez zuen inork ikusi; izan ere, langile ohia izanik, zaindari eta langileen ordutegi eta ohiturak ezagutzen zituen. Saint Louis ospitaleko auzoko bere pisu txikira joan, Mona Lisa mahaiaren gainean utzi eta beluz gorriko oihal zati batekin estali zuen. Goizeko bederatzietan heldu zen lanera, behar baino beranduago. Bart gaueko mozkorraldia jarri zuen aitzakia gisa.

1911ko abuztuak 22, asteartea. Louis Béroud margolaria paretako hutsuneaz oharitu eta abisua eman zuen. "Segituan ekarriko dute; argazkia ateratzera eramango zuten", erantzun zion Poupardin brigadierrak. Bérouden burugogorkeriari esker, goizeko hamaiketarako museoko langile guztiek bazekiten Mona Lisa ez zegoela argazkilaritza estudioan. Eguerdirako polizia bazuen desagerpenaren berri. Arratsalde hasieran Louis Lepine prefeta eta bere hirurogei bat inspektore museoan zehar sakabanatu ziren. Paristarrek oraindik ez zekiten horri buruzko ezer. Markoa aurkitu zutenean, prefetak Gioconda museo barruan bilatzeko agindua eman zuen. Bere ustez, langile batek koadroari bastidorea kendu, oihala kiribil-

du eta museo barruan ezkutatu zuen, egun batzuen buruan, giroa baretzean, poltsikoan erraz ateratzeko asmoz. Louvreko kontserbatzaile batek Mona Lisa zumartxuriko xafla batean margotuta zegoela eta poltsiko batean ateratzea ezinezkoa zela azaldu zion Lepineri. "Gaur goizetik, margolana hainbat zatitan mozteko denbora nahikoa izan du lapurrak!", erantzun zion prefetak. Logika puruaren absurdua. Arratsaldeko hiruretan museoak publikoarentzako atea itxi zituen. Zurrumurrua Parisen zabaltzen hasia zen dagoeneko.

1911ko abuztuak 24, osteguna. Frantziako nahiz mundu osoko prentsak lapurretaren berri eman zuten. "Hau inteligentzia, txoria hegaldatu ostean kaiola itxia!", L'Humanité egunkari komunista.

Hurrengo asteetan Gioconda-ren jarraitzaileen artean zabalduak atsekabe eta haserreak hainbat ekimen abiarazi zituen munduan zehar. Louvreren Lagunen Elkartek, adibidez, garaiako 500.000 franko biltzea lortu zuen. Baina balizko erreskateak ez zuen emaitzarik izan.

1911ko irailak 7, osteguna. Poliziak Guillaume Apollinaire atxilotu eta galdekatu zuen. Poetak Louvre "artearen espetxe" zen heinean erre egin beharko litzatekeela adierazi izana izan zen poetaren aurkako zantzu nagusia. Paristarren haserre baretzeko neurri polizial bat.

1911ko irailak 8, ostirala. Poliziak Pablo Picasso margolari gaztea atxilotu eta galdekatu zuen.

Hurrengo egunetan biak libre utzi zituzten, proba faltagatik. Belgikako Honoré-Joseph Géry Pieret abenturazalea ere atxilotu eta galdekatu zuen. Azken honek 1906an bi estatuetako lapurtu zituela aitortu zuen eta Gioconda-ren desagerpenarekin inolako harremanik ez zuela.

Eduardo Valfierno

1850ean Buenos Airesen jaio zen. Lur-jabe aberats baten semea izanik, luxuetan hezia izan zen. Horren ondorioz, aitak oinordekotzan utzitako dirutza guztia azkar xahutu zuen eta familiako artelan eta antigoaleko objektuak saldu behar izan zituen. Baina, hala ere, ezin izan zuen porrota ekidin. Garai hartan murgildu zen delitugintzan, haren bezeroak lapurtutako piezak erosteko prest zeudela ikusi zuelako.

Valfiernoko markes gisa Parisera egiten zituen bi-daietako batean Yves Chaudron ezagutu zuen, faltsutze lanetan jaioa zen margolaria. Bien artean ondu zuten Gioconda lapurtzeko plana: Chaudronek hamalau hilabete igaro zituen Gioconda-ren sei kopia margotzen; horretarako Mona Lisaren material berdina erabili zituen: XVI. mendeko zumartxuriko x-flak edota garai hartako prozedurak jarraituz eskuz egindako olio-margoak. Tarte horretan, Valfierno erosle posibleekin harremanetan hasi zen eta Vincenzo Peruggiarekin hitz egin zuen obra lapur zezan. Zurgina konbentzitzeko bi gezur jarri zituen mahai gainean: alde batetik, sekulako dirutza emango zion, eta, bestetik, bildumagile italiar batek Napoleon Bonapartek Italiari lapurtutako koadroa bere jatorrizko aberrira itzuli nahi zuela esan zion. Baina Valfiernok ez zuen benetako Mona Lisa saltzeko asmorik. Aurrez hitzartutako erosleei 300.000 dolarreko prezioan saldu zien margolan faltsu bana, bakoitza benetakoa balitz bezala.

Vincenzo Peruggia

1881eko urriaren 8an jaio zen Como probintziako Dumenza herrian, Italian. Igeltsero baten familia bateko lau haurretan zaharrena. Hamabi urterekin familia utzi eta Milanera joan zen margotzaile ofizioa ikastera. Hemezortzirekin Lyonera joan zen. Berunezko bernizarekin lan egitearen ondorioz saturnismo sintomak agertu zitzaizkion, eta Italiara itzuli zen hemeretzi urterekin. 1902. eta 1908. urteen artean bitan joan zen Parisera, eta margo, ispilu eta beirekin lan egiten zuen Gobier enpresan lanean hasi zen. Lan honi esker, Gioconda, Louvre eta bertako langileen errutina ezagutu zituen. Izan ere, museoak bere patroia kontratatu zuen Mona Lisa babestuko zuen beirazko kutxa egiteko.

Parisen bizi ziren italiar gehientsuenek bezala, frantziarren irain eta amarruak pairatu behar izan zituen.

Justiziarekin arazo handirik izan ez zuen arren, Gioconda lapurtu zuenerako bitan kondenatutako gizona zen Peruggia, eta bere hatz markak nahiz datuak artxibategi ofizialean zeuden: 1,6 l cmko altuera, gorpuzkera ahula, begi marroi argiak eta gaztaina kolore iluneko ilea. Lapurretako ikerlariak, ordea, ez zituzten datu horiek ikerketa bitartean erabili.

Peruggiak bi urtez gorde zuen Gioconda bere etxean, norbaitek zer egin behar zuen esango ziolakoan. Margolana erratzen gelan gordeta zuen egun batean polizia inspektore bat joan zitzaion etxera; poliziek beirazko kutxan hatz marka bat aurkitu zutela eta prefetak kontrol erraldoia deitua zuela museoan, lapurra harrapatzeko asmoz. Ea zergatik ez zen bera kontrolera agertu. Aitzakia sinple batekin inspektorea etxetik bidaltzea lortu zuen lapurrak

C'est fini

1913ko udazkena, astelehena. Peruggiak iragarki bat ikusi zuen egunkari italiar batean: Florentziako antikuari bat "edozein motako arte objektuen truke" prezio onak ordaintzeko prest zegoen. Alfredo Geri bildumagile italiarrari gutuna idatzi zion.

1913ko azaroak 29, larunbata. Vincenzo Leonard misteriotsu batek Parisetik igorritako gutuna jaso zuen Gerik: "Gioconda daukat eta nire aberriari itzuli nahi diot". Gerik Florentziako bere arte galerian zitatu zuen, irrikaz. Koadroa bi baldintzekin eskaini zion: 500.000 lira eta margolana Frantziara sekula itzuliko ez zuela zin egitea.

1913ko abenduak 10, asteazkena. Vincenzo Peruggia ostatu hartu zuen Tripoli e Italia hotelean zegoen zain. Bere kuxtako hondo bikoitzean ezkutaturik zeukan Mona Lisa, oihal gorrian bilduta. Hainbat bileraren ostean Alfredo Geri hotelera joan zen Galleria degli Uffiziko zuzendari eta lagun duen Giovanni Poggiren laguntzaz. Ordaindu aurretik denbora irabazteko asmoz, Poggik artelana bere galeriako adituek aztertzea eskatu zion Peruggiari. Zurgin inuzenteak hotelean itxoiten zuen bitartean Gerik eta Poggik Giocondaren egiazkotasuna baieztatu zuten eta polizia hots egin zioten. Peruggia erresistentziarik gabe atxilotu zuten.

Louvra itzuli aurretik, Gioconda Florentzia, Erroma eta Milanen erakutsi zuten.

Urte eta erdi beranduago, Italian epaitu zuten Peruggia. Abokatuak arrazoi patriotikoak argudiatu zituzten eta urte eta erdiko espetxe zigorra ezarri zioten. Zazpi hilabete eta lau egunen ostean, kalean utzi zuten. Lehen Mundu Gerra hasia zen orduan.

Valfiernori eta Chaudroni, aldiz, plana bikain atera zitzairen. Los Angelesera (AEB) joan ziren eta obra faltsuak salduz dirutza biltzen jarraitu zuten. 1931. Bere heriotza hurbil ikusten zuenez, Valfiernok elkarrizketa eskaini zion Karl Decker kazetariari. Bertan, bere ondasunaren jatorria aitortu zuen, zehaztasun handiz. Sei erosleen izenak eman zituen. Baldintza bakarra jarri zuen: kontatutakoa hil ondoren zabalduko zela. Hiltzerakoan, Valfiernok 30 eta 60 milioi dolar artean zituela uste da.

[1M]

Korrikaren ametsa

Hirugarrenez serio ari ote nintzen galdetu zidatenerako barre eta algarak eten egin ziren.

“Hori al da benetan hire idei fantastikoa? Horretarako bildu gaituk?”. Andoni eta beste hamar bazarkide niri begira zeuden, momentu batetik bestera txantxetan nengoela esango nuelakoan. “Ideia esaten da”, erantzun nion.

1979ko urtarrila zen. AEK-ko zuzendaritza taldean hamabi lagun geunden, eta hilero bezala, gure egoera ekonomikoa zen kezkarik larriena. Proiektu handiegia zen euskara bezalako hizkuntza txiki, zahar eta jipoitu batentzat, baina helburuak merezi zuela pentsatzen genuen.

“Ideia hitzak, A itsatsia zeukak”, jarraitu nuen, Andoniri begira. “Hori jakin beharko huke”. Gelan sumatzen zen tentsioa baretzeko asmoz irribarrea berreskuratzen saiatu zen Joseba. “Bale, oso ondo Alfredo. Orduan hik proposatzen duan lasterketa horretan gau eta egunez, etengabe, korrika egingo luke jendeak? Benetan uste duk jendea goizeko laueta, esate baterako, korrika egiteagatik ordaintzeko prest egongo dela?”.

Horrela esanda, nire proposamenak ez zuen zentzu handirik, baina gogotsu defendatzen saiatu nintzen. “Herrian ilusio eta lan egiteko gogo handia dago! Halako proiektu bat behar dugu garai berriaren erronkei aurre egiteko. Zer diozue besteok?”.

Eztabaidaren ostean erabakiak hartzeko momentua heldu zen. “Bazekiat hemen erabakiak aho batez adosten ditugula”, esan zuen Andonik tonu etsitu batean, “baina ikusita adostasunik ez dagoela, bozkatzea proposatzen dut”. Beste irtenbiderik ez zegoela ikusita, horrela egin zen.

Nire barrenean egun historiko bat izan zitekeela uste nuen, baina boto baten erruz ez zen hala izan. Bost lagunek eman zuten proiektuaren aldeko botoa, seik kontrakoa eta batek ez zuen bozketan parte hartu. Hor amaitu zen Korrika proiektuaren ametsa.

Urteak pasa dira, 36 urte hain zuzen ere. 2015. urte honetan ezin da esan gauzak ondo doazenik. Hasierako urte horietan, gogotsu, milaka lagunek izena eman zuten euskaraz ikasteko, baina urteak pasa ahala ilusio horiek iraungiz joan dira. Aurten, berriro ere, euskaltegi baten itxierarekin hasi dugu ikasturtea. Iruñea euskaltegirik gabe geratu da.

“Zer egingo diogu ba... Nafarroan euskaraz hitz egiteak ez du ezertarako balio!”, esan zidan lagun batek duela aste pare bat Donostiako kafetegi batean Diario Vasco irakurtzen ari zela. “Begira Baztanen zer gertatzen ari den...”.

Negargarria bazen ere, nire lagunak arrazoi osoa zuen. Baztanetik zetorren berriaz ari zen. Urtero bezala, Elizondoko “Plataforma G” izeneko elkarteak antolatuta, gazteleraz ikasteko eskubidea babesteko baliabide gehiago eskatzen zituzten, G ereduko zentro berri bat hain zuzen ere, orain arteko eskaintzak ez baititu eskaera guztiak behar bezala asetzen. Haiekin batera alkatea, zinegotziak eta beste herritar asko ere ageri ziren, Baztan eta beste eskualde batzuetatik etorriak.

“Iparralden ia galduta, Araba eta Nafarroan, agure batzuk kenduta, desagertzeaz. Bizkaian oraindik ikastolei esker mantentzen ari da, baina gutxika galduz... Eskerrak gipuzkoarrak hemen gaudela gurea dena babesteko!”, esan zidan harro-harro lagunak. “Hurrengoak gu gara”, erantzun nion. “Zure harrokeria horrek ez du ezertarako balio. Oso lasai bizi izan gara orain arte, babestuak. Ekialdetik Nafarroa, hegoaldean Araba, mendebaldetik Bizkaia. Hurrengoak gu izango gara”. Lagunak kontra egiteko ahalegina egin zuen, baina berari ezer esateko denborarik eman gabe zera esan nion: “Egunkaria itxi behar izan genuen, AEK desagertzeaz dago, ikastolak Bizkaian eta Gipuzkoan besterik ez, ETB 1en trikitixa, herri-kirolak, pilota eta futbola besterik ez dago... kitto! Ez dugu ezer”.

Urteak pasa dira. Ez naiz 79an gogotsu ari zen 31 urteko gazte hura. Jubilatua berria naiz, eta gaur egun, oraindik ere ezin dut egun hura burutik kendu. Ez dakit zer baitetarako balio izango zuen gauzatu ezin izan nuen amets horrek. Korrika proiektuarekin agian ezer gutxi lortuko genukeen. Baina ezer ez egin izanaren suak barrenak erretzen dizkit. Nolabait errudun sentitzen naiz, nire esku zegoena egin izan ez nuelako. Oraindik ere, gau askotan, Korrikarekin amesten dut: milaka lagun euskararen alde, ttipi-ttapa Euskal Herri osoan barrena korrika, haur, gazte eta heldu... ametsa besterik ez.

Amesgaiztoa esnatzen naizenean hasten da.

[1Y]

